

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO  
ADMINISTRAZIOA**

2

**ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO  
HISTÓRICO DE GIPUZKOA****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****INGURUMENEN ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO  
DEPARTAMENTUA**

*GI-638 errepidea hobetzeko eta 1+200 eta 3+610 KPen artean (Deba-Mutriku) oinezkoen pasabidea egiteko proiektuaren ingurumen inpaktuari buruzko txostena.*

Ingurumeneko zuzendari nagusiak 2017ko maiatzaren 30eko datarekin, ondoren argitaratzen den Ebazpena hartu zuen:

## «AURREKARIAK

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturretako Departamentuak, 2017ko martxoaren 7an, GI-638 errepidea hobetzeko eta 1+200 eta 3+610 KPen artean (Deba-Mutriku) oinezkoen pasabidea egiteko proiektuari dagokion hasierako ingurumen agiria bidali zuen Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honetara, ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egiteko.

Ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 7.2.c) artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egin beharko da, besteak beste, I. eranskineko edo II. eranskineko proiektu baten ezaugarrien edozein aldaketan, 7.1.c) artikuluan deskribatutako aldaketekin bat ez datorrena, jada baimendua, egikaritua edo egikaritzeko prozesuan dagoena, ingurumenean kalte adierazgarriak eragin baditzake. Era berean, lege horrek II. eranskinean ezarritakoaren arabera, erazutitako materialak gordetzeko instalazioek, 1 ha baino azalera handiagoa hartzen dutenean, prozedura hori jarraitu beharko dute.

Arestian esandakoarekin bat, GI-638 errepidea hobetzeko eta 1+200 eta 3+610 KPen artean (Deba-Mutriku) oinezkoen pasabidea egiteko proiektuak, berorri lotutako soberakin-biltegia ere barne dela, ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egin behar du. Eta ebaluazio hori, aipatutako Legearen 45, 46, 47 eta 48. artikuluetan xedatutakoaren arabera egingo da.

Hori horrela, 21/2013 Legearen 46. artikuluan zehaztutako kontsulten izapidea eginik, prozedura horren barruan Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honi dagokio ingurumen inpaktuari buruzko txosten hori egitea. Egindako kontsulten emaitzak ikus-tean, eta III. eranskinean ezarritako irizpideekin bat, informe horretan erabakiko da proiektuak ingurumenean kalte aipagarriak eragin ditzakeen eta ondorioz, ingurumen inpaktua ebaluatzeko prozedura arrunta jarraitu behar duen; edota, horrelako ondorioz ez duen, txostenean ezarritako baldintzetan.

**2. Egindako kontsultak.**

Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honek segidan aipatuko diren administrazio, pertsona eta erakunde interesatuak kontsultatu ditu, Bide Azpiegiturretako Departamentuak bidalitako dokumentazioa haien eskura jarrita:

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Kulturako Zuzendaritza.

**DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA****DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE  
Y OBRAS HIDRÁULICAS**

*Informe de impacto ambiental del proyecto de mejora de la carretera GI-638 y creación de paseo peatonal entre los PKs 1+200 y 3+610 (Deba-Mutriku).*

Con fecha 30 de mayo de 2017, el Director General de Medio Ambiente ha dictado la Resolución que a continuación se publica:

## «ANTECEDENTES

Con fecha 7 de marzo de 2017, el Departamento de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa remitió a esta Dirección de Medio Ambiente para su evaluación de impacto ambiental simplificada el documento ambiental inicial correspondiente al proyecto de mejora de la carretera GI-638 y creación de paseo peatonal entre los PKs 1+200 y 3+610 (Deba-Mutriku).

El artículo 7.2.c) de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, establece que será objeto de evaluación de impacto ambiental simplificada, entre otros supuestos, cualquier modificación de las características de un proyecto del Anexo I o del Anexo II, distinta de las modificaciones descritas en el artículo 7.1.c), ya autorizado, ejecutado o en proceso de ejecución, que pueda tener efectos adversos significativos sobre el medio ambiente. Asimismo, según el Anexo II de la ley, las instalaciones para el depósito de materiales de extracción con una superficie superior a 1 ha también están sometidas a ese procedimiento.

De acuerdo con lo anterior, el proyecto de mejora de la carretera GI-638 y creación de paseo peatonal entre los PKs 1+200 y 3+610 (Deba-Mutriku), incluido el depósito de sobrantes asociado a aquél, está sometido al procedimiento de evaluación de impacto ambiental simplificada, el cual debe efectuarse de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 45 al 48 de la ley.

Por tanto, en el marco de ese procedimiento, y tras la realización del trámite de consultas especificado en el artículo 46 de la Ley 21/2013, corresponde a la Dirección General de Medio Ambiente emitir el informe de impacto ambiental, en el que, de conformidad con los criterios establecidos en el anexo III y a la vista del resultado de las consultas realizadas, se determina si el proyecto puede producir efectos significativos sobre el medio ambiente, y, por tanto, debe someterse al procedimiento de evaluación de impacto ambiental ordinaria; o no lo tiene en los términos que se establezcan en dicho informe.

**2. Consultas efectuadas.**

Esta Dirección General de Medio Ambiente ha consultado a las siguientes administraciones, personas e instituciones afectadas o interesadas, poniendo a su disposición la documentación remitida por el Departamento de Infraestructuras Viarias:

— Dirección de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde ordezkariak.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Isasertzaren Garapena eta Europar Politiken Zuzendaritza.
- IHOBE.
- URA.
- Gipuzkoako Uren Kontsortzioa.
- Kantauriko Ur Konfederazioa.
- Gipuzkoako Kostaldean Zerbitzu Probintziala.
- Mutrikuko Udala.
- Debako Udala.
- Aranzadi Zientzi Elkarteak.
- Eguzki talde ekologista.
- Ekologistak Martxan Gipuzkoa taldea.
- Itsas Enara ornitologia taldea.
- Mutriku Natur Taldea.
- ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna).
- EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna).
- Debegesa Eskualdearen Garapenerako Agentzia.
- Debemen Landa Garapeneko Elkarteak.

Era berean, dokumentazio osoa iragarrita eta eskura egon da Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren interneteko web orrian, ([www.gipuzkoaingurumena.eus](http://www.gipuzkoaingurumena.eus)), herritar guztiek eta interesdun orok bidezkoztat jotako ingurumen arloko ekarpenak egiteko aukera izan zezaten.

Ezarritako epea amaiturik eta txosten hau atera arteko egunean, egindako kontsultei emandako erantzun hauek jaso dira:

1. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak jakinarazi duenez, errepidearen trazadura bat dator Nekazaritza eta Abeltzaintza nahiz Landazabal Kategoriaren Trantsizioko Landa-Paisaia azpikategoriarekin eta EAEko Nekazaritza eta Basozaintza LPSaren Basozaintza kategoriarekin, eta soberakinen depositua ere Trantsizioko Landa Paisaiaren azpikategoriaren barruan dago. Proiektuak nekazaritza-sektorean duen eragina ebaluatzeari beharrezkoa deritzo eta horretarako kontuan hartu behar da bai nekazaritza- eta abeltzaintza-lurzorua okupazioa bai proposatutako esku hartzeen eragina jasan dezaketen nekazaritza-ustiapenetan sorra-razitako inpaktua; ebaluazio hau egiteko posible da Nekazaritza eta Basozaintzako LPSean ezarritakoa oinarri gisa hartzea.

- Dirección de Montes y Medio Natural de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Dirección de Agricultura y Desarrollo Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Dirección de Movilidad y Transporte Público de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Dirección de Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología del Gobierno Vasco.
- Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Salud del Gobierno Vasco.
- Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco.
- Dirección de Administración Ambiental del Gobierno Vasco.
- Dirección de Medio Natural y Planificación Ambiental del Gobierno Vasco.
- Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco.
- Dirección de Infraestructuras de Transporte del Gobierno Vasco.
- Dirección de Desarrollo Rural y Litoral y Políticas Europeas del Gobierno Vasco.
- IHOBE.
- URA.
- Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.
- Confederación Hidrográfica del Cantábrico.
- Servicio Provincial de Costas de Gipuzkoa.
- Ayuntamiento de Mutriku.
- Ayuntamiento de Deba.
- Sociedad de Ciencias Aranzadi.
- Grupo ecologista Eguzki.
- Grupo ecologista Ekologistak Martxan Gipuzkoa.
- Grupo ornitológico Itsas Enara.
- Mutriku Natur Taldea.
- ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna).
- EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna).
- La Agencia de Desarrollo Comarcal Debegesa.
- La Sociedad de Desarrollo Rural Debemen.

Asimismo, la documentación ha sido anunciada y ha estado accesible en el portal de internet de la Dirección General de Medio Ambiente ([www.gipuzkoaingurumena.eus](http://www.gipuzkoaingurumena.eus)) para que el público general y cualquier interesado pudiesen realizar las aportaciones de carácter ambiental que considerase oportunas.

Finalizado el plazo establecido y hasta la fecha de emisión de este informe, se han recibido las siguientes respuestas a las consultas efectuadas:

1.º La Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco informa que el trazado de la carretera coincide con la subcategoría de Paisaje Rural de Transición de la categoría Agroganadera y Campiña y con la categoría Forestal del PTS Agroforestal de la CAPV, y que el emplazamiento del depósito de sobrantes se sitúa también en la subcategoría de Paisaje Rural de Transición. Considera necesario que se proceda a evaluar la afección sectorial agraria del proyecto teniendo en cuenta, tanto la ocupación del suelo agroganadero como el impacto generado sobre las explotaciones agrarias que puedan verse afectadas por las intervenciones propuestas, pudiendo tomarse como base para esa evaluación lo que al respecto establece el PTS Agroforestal.

2. Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi duenez, proiektuaren eremuan ez da horri buruzko elementu katalogaturik azaltzen.

3. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak honako hau gogoratu du: proiektuaren eraginpeko eremuan 4 hondartza daudela jariatze uren balizko eragina obra-fasean jasan dezaketenak, baina proiektuan neurri zuzentzaileak hartzea aurreikusita dagoela kutsadura hori ekiditeko. Halaber, proiektuak osasun publikorako garrantzizko inpakturik ez duela uste du; ingurumen inpaktuaren azterketa egitean edo ebaluazio prozesuan bertan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdirik ez dakar, beraz.

4. Kantauriko Ur Konfederazioak jakinarazi duenez, proiektuaren lurralde eremuan eskumenak dituen administrazio hidraulikoa Uraren Euskal Agentzia da.

5. Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak adierazi duenez, aurkeztutako hasierako ingurumen agiriak, oro har, proiektuak eragindako eremuaren azterketara egiten duen hurbilketa zuzena da, baina inpaktuen analisia eta neurri zuzentzaileen aplikazioa oso azal gaineratik eta oso generikoki egin da eraginpeko aldagai batzuen kasuan (geomorfologiaren, habitaten eta intereseko landareen, eta betelanez eragindako elementuen kasuan). Era berean, erabilitako lege erreferentziak gaurkotu gabe daudela ere adierazi du.

6. Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritzak jakinarazi duenez, Deba eta Mutriku arteko GI-638 errepidearen ondoan igarotzen den bizikleta eta oinezkoentzako bide bat (O2 O16F) jasotzen da Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen arloko Planaren Donostia-Mutriku I-2. Ibilbidean. LAPak onartzen du bizikleta bide hau aparte egiteko aukerak ez dutela konponbide errazik eta «bertako errepideetan jardueraren bat egitea izan daiteke irtenbidea». Adierazten du, ibilbideen maldak eta distantziak direla eta, Deba eta Mutriku lotzeko bizikleta bide batekin GI-638 errepidearen ondoko trazatua egokiena dela beste aukera bideragarriarik ez daudelako. Beraz eskatzen du errepidearen proiektuaren barruan bizikleta bide bat sartzeko eremu ezberdinetan izan litezkeen sekzioekin, eta horretarako Gipuzkoako bizikleta bidearen gidaliburua jarraitzea.

7. Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak aipatzen ditu proiektuak kontuan hartzeko babes zibilarren arrisku hauek: proiektuaren eragin-eremuan uholde arriskuen guneak ez dira antzeman, GI-638 errepidean merkantzia arriskutsuen trafikoa dagoenez errepidearen alde bakoitzean 600 metroko eragin-eremua dago non istripu izanez gero esku hartu beharko den, Mutriku eta Deba udalerritan ez daude Seveso Araudiak jarraitu behar duen establezimendurik, eta eremuan arrisku sismikoa eta baso suteen arriskua baxuak dira.

Jasotako erantzun guztiak, eta txosten hau eman eta gero iritsiko direnak, organo sustatzailerari igorriko zaizkio, proiektua prestatzean eta izapidetzean kontuan izan daitezela, hala balegokio.

3. *21/2013 Legearen III. eranskinean ezarritako irizpideen arabera*ko analisia.

Proiektuaren ezaugarriak:

Ondarbeltz hondartzaren (aparkalekuetarako erabiltzen den gaur egungo plataformaren amaieran) eta Mutrikuko herri gunearen (kanpinean sartzeko bidegurutzera igarota) artean igarotzen den 2.420 m-ko bide zatian, GI-638 errepidearen funtzionaltasuna zuzena izan dadin, egin beharreko hobekuntzak definitzea du helburu proiektuak, baita galtzadan zehar oinezkoen itsas pasabide bat gehitzea ere.

2.º La Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco informa que en el ámbito del proyecto no figuran elementos catalogados al respecto.

3.º La Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Salud del Gobierno Vasco recuerda que en el área de influencia del proyecto existen 4 playas que pueden ser objeto de una posible afección en fase de obras por las aguas de escorrentía, pero que en el proyecto se prevén medidas correctoras para evitar esa contaminación. Asimismo considera que el proyecto no presenta impactos de consideración para la salud pública que supongan aspectos fundamentales que deban ser tenidos en cuenta a la hora de la realización del estudio de impacto ambiental o en el propio proceso de evaluación.

4.º La Confederación Hidrográfica del Cantábrico comunica que la administración hidráulica que ejerce sus competencias en el ámbito territorial del proyecto es la Agencia Vasca del Agua.

5.º La Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climático del Gobierno Vasco señala que el documento ambiental inicial presentado realiza de forma general un acercamiento correcto al estudio del entorno afectado por el proyecto, pero que el análisis de los impactos y el establecimiento de las medidas correctoras se ha efectuado de modo muy genérico y superficial para algunas de las variables afectadas (geomorfología, hábitats y vegetación de interés, y elementos afectados por el relleno). Igualmente indica que hay una desactualización en las referencias legales utilizadas.

6.º La Dirección de Movilidad y Transporte Público de la Diputación Foral de Gipuzkoa informa que el itinerario I-2 Donostia-Mutriku del PTS de Vías Ciclistas de Gipuzkoa contempla una vía ciclista peatonal para el tramo entre Deba y Mutriku (O2 O16F) que transcurre junto a la carretera GI-638. El PTS reconoce que las oportunidades de actuación para llevar a cabo esa vía ciclista de forma aislada no cuentan con una resolución fácil, por lo que expresa que «la solución podría estar ligada a algún tipo de actuación sobre las carreteras existentes», ya que por cuestiones de pendientes y distancias de recorridos, no existen otras alternativas viables y que el trazado asociado a la carretera GI-638 es el más adecuado para unir Deba y Mutriku con una vía ciclista. Por tanto, solicita contemplar en el proyecto de la carretera una vía ciclista, estudiando en las diferentes zonas las secciones posibles, siguiendo para ello el Manual de Vías Ciclistas de Gipuzkoa (2006).

7.º La Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología del Gobierno Vasco señala lo siguiente en cuanto a los riesgos de protección civil de cara a que sean tenidos en cuenta en el proyecto: en la zona de afección del proyecto no se han detectado zonas con riesgo de inundabilidad, en la carretera GI-638 existe tráfico de mercancías peligrosas por lo que existe una zona de afección de 600 m a cada lado de la misma que sería la zona a intervenir en caso de accidente, no existe ningún establecimiento sujeto a la normativa Seveso en los municipios de Mutriku y Deba, es una zona con bajo riesgo sísmico y con bajo riesgo de incendio forestal.

Todas las respuestas recibidas, y las que lleguen de forma posterior a la emisión de este informe, serán remitidas al órgano promotor a fin de que, en su caso, sean tenidas en cuenta en la elaboración y tramitación del proyecto.

3. *Análisis en base a los criterios establecidos en el anexo III de la Ley 21/2013.*

Características del Proyecto:

El proyecto tiene como objeto definir las mejoras necesarias para una correcta funcionalidad de la carretera GI-638 en el tramo de 2.420 m que transcurre entre la playa de Ondarbeltz (al terminar la actual plataforma destinada a estacionamientos) y el núcleo urbano de Mutriku (pasado el cruce de acceso al camping), incluyendo la incorporación de un paseo peatonal de costa a lo largo de la calzada.

Errepidearen trazadura eta ezaugarriak kontuan hartuta, honako hau egitea erabaki da: 3 m-ko zabalerako bi erraileko sekzio konstante bat galtzadarako (bihurguneetan zabalagoak, beharrezkoa denean), 0,5 m-ko bazterbideak albo bakoitzean, lur erazuzian 1,20 m-ko zabalerako segurtasun areka bat (0,60 ertz erretan motako areka laburrago bat izan daiteke) eta galtzadaren eta oinezkoen ibilbidearen arteko elementu bereizle bat (0,60 m-koa). Sekzio honetatik kanpo kokatuko da oinezkoen pasabidea, 2 m-ko zabalera librea izango du, eta 0,20 m gehiago itsas aldeko baranda edo eskudela jartzeko, erremate gisa. Halaber, trazaduran gatazkatsu gertatzen diren bi puntu hobetu nahi dira (Ipitxarriko eta Alkoleako bihurguneak), mota honetako errepide baten geometriaren azpitik gelditzen baitira.

Garatu beharreko irtenbidearen definizioa lortzeko, aukerei buruzko analisi bat egin da, ondoko irizpideak oinarritzat hartuta: Trazadurari buruzko Arauan C-40 motako errepide bate-rako ezarritako pareko trazadura bat bilatzea; sekzio konstante duen galtzada-mota bat egokitzea, goian aipatu bezala; ILJ-Paren okupazioa minimizatzea; eta egungo galtzada ahalik eta gehien aprobetxatzea (Ipitxarriko bihurgunean eta Alkoleako bihurgunean izan ezik, hobetuko dituzten trazadura alternati-boak bilatzeko ahalegina egingo baita).

Beraz, trazadura osoa bost bide zatitan banandu da, eta egungo errepidearen geometria egokituz soil-soilik konpondu ezin diren bide zatien kasuan, trazadura aldatzea ekar lezake-ten hainbat aukera zehaztu dira.

1. bide zatia: Hasierako bide zatia Ondarbeltzen:

– A aukera: egungo plataforma zabaltzea.

– B aukera: tunelean trazadura aldatzea Ondarbeltzetik egungo plataformaraino, Ipitxarriko bihurgunea igarota.

– C aukera: tunelean trazadura aldatzea Ondarbeltzetik egungo plataformaraino, 3. bide zatian.

2. bide zatia: Ipitxarriko bihurgunea:

– D aukera: egungo plataforman kurbaduraren erradioa hobetzea.

– E aukera: tunelean trazadura aldatzea.

– F aukera: egungo plataformatik, trazadura zertxobait aldatuz eta okupazioak zabalduz.

3. bide zatia: Ipitxarri eta Alkolea arteko bide zatia.

– G aukera: egungo plataformatik, okupazioak zabalduz.

4. bide zatia: Alkoleako bihurgunea:

– H aukera: egungo plataformatik, baina kurbaduraren erradioa hobetuz eta okupazioak zabalduz.

– I aukera: tunelean trazadura aldatzea.

5. bide zatia: Alkoleatik Mutrikuko sarreraraino doan bide zatia (trazatuaren amaiera):

– J aukera: egungo plataformatik, baina okupazioak zabalduz.

0 aukera (egungo galtzada bere horretan uztea) baztertu egin da, C-40 errepide baten diseinu parametroak betetzen ez dituelako, bi puntu kritikiko daude (Ipitxarri eta Alkolea) eta egungo errepideak oinezkoentzat inongo lotura egiteko aukerarik ematen ez duelako.

Beraz, planteaturiko trazadura geometrikora, baldintza geoteknikoetara, ingurumen eta paisaia baldintzetara, obrek trafikoan izango dituen eraginek, ILJPan izango dituen eraginek eta kalkulatu diren kostu ekonomikoetara egokitzeko aukera bakoitzean oinarrituriko irizpide anitzeko balorazio azterketa bat egin ostean, A, D, G, I eta J aukerak alternatiboki eta kontsekutiboki konbinatzen dituen aukera hautatu da.

Atendiendo al trazado de la carretera y sus características, se adopta una sección tipo constante para la calzada de dos carriles de 3 m de anchura (más sobrecanchos en curva cuando sean necesarios), arcenes de 0,5 m a cada lado, cuneta de seguridad en desmonte de 1,20 m de anchura (reducible a cuneta tipo ríbola de 0,60), y barrera o elemento separador entre calzada y paseo peatonal de 0,60 m. Por fuera de esta sección se situará un paseo peatonal de 2 m de anchura libre, con 0,20 m adicionales para la barrera o barandilla de remate por el lado de la costa. Asimismo, se pretende mejorar dos puntos conflictivos en el trazado (curvas de Ipitxarri y de Alkolea), que quedan por debajo de la geometría de una carretera de estas características.

Para llegar a la definición de la solución a desarrollar se ha realizado un análisis de alternativas basado en los siguientes criterios: la búsqueda de un trazado asimilable a lo establecido en la Norma de Trazado para una carretera tipo C-40, la adopción de una calzada con la sección tipo constante arriba comentada, la minimización de la ocupación del DPMT, y el aprovechamiento máximo posible de la calzada existente (salvo en la curva de Ipitxarri y la curva de Alkolea donde se pretende buscar trazados alternativos que las mejoren).

De esta forma se ha dividido el trazado total en cinco tramos, definiendo diferentes alternativas para aquellos tramos que no se resuelven con meros ajuste de la geometría de la carretera actual y que pueden implicar, por tanto, un cambio de trazado:

Tramo 1: Tramo de inicio en Ondarbeltz:

– Alternativa A: Ampliación de la plataforma actual.

– Alternativa B: Cambio de trazado en túnel desde la zona de Ondarbeltz con salida a la plataforma actual después de la curva de Ipitxarri.

– Alternativa C: Cambio de trazado en túnel desde la zona de Ondarbeltz con salida a la plataforma actual en el tramo 3.

Tramo 2: Curva de Ipitxarri:

– Alternativa D: Mejora del radio de curvatura sobre la plataforma actual.

– Alternativa E: Cambio de trazado en túnel.

– Alternativa F: Por la plataforma actual rectificando algo el trazado y ampliando ocupaciones.

Tramo 3: Tramo entre Ipitxarri y Alkolea:

– Alternativa G: Por la plataforma actual ampliando ocupaciones.

Tramo 4: Curva de Alkolea:

– Alternativa H: Por la plataforma actual pero mejorando el radio de curvatura y ampliando ocupaciones.

– Alternativa I: Cambio de trazado en túnel.

Tramo 5: Tramo desde Alkolea hasta la entrada en Mutriku (fin de trazado):

– Alternativa J: por la plataforma actual pero ampliando ocupaciones.

La alternativa 0 (mantenimiento de la calzada actual) se ha desestimado porque incumple los parámetros de diseño de una carretera C-40, existen dos puntos críticos (Ipitxarri y Alkolea) y porque la carretera actual no ofrece ninguna posibilidad de conexión peatonal.

Así, tras un análisis de valoración multicriterio basado en el grado de adecuación de cada alternativa al trazado geométrico planteado, a los condicionantes geotécnicos, a los condicionantes ambientales y paisajísticos, a las afecciones de las obras al tráfico, a las afecciones al DPMT y a los costes económicos estimados, se ha optado por la solución que combina consecutivamente las alternativas A, D, G, I, J.

Halaber, obran sorrarazitako soberakinak biltzeko depositu bat zabaltzea dakar berekin proiektuak, eta, gutxi gorabehera, 80.000 m<sup>3</sup> izango direla kalkulatu da. Aztertu diren kokatze aukerak 4 dira, eta azkenik obratik hurbil dagoen Laranga aldeko kokaleku bat aukeratu da, gutxi gorabehera 25.000 m<sup>2</sup> ditu eta Larangaetxeberri baserriaren inguruetan dago.

Exekuzio eremuaren ingurumen sentikortasuna:

Proiektua osorik garatuko da Mutriku udal barrutian, Mutriku eta Deba arteko kosta zatian, nondik igarotzen baita gaur egungo GI-638 errepidea. Paisaia osatzen duten egungo erabilerei loturiko ingurune orokor bat da, aldakorra eta mistoa, non antzematen baitira bai landa- edota natura-elementuak (itsas eremua, labarrak eta itsasertzeko plataforma arroka-tsua -hondartza, Ondarbeltz aldean-, zuhaitzi naturalak eta landa-lurrak, belardiak, eta abar.) bai ingurune urbanoagoak eta antropizatuagoak (errepidea bera eta aldameneko guneak, aparkalekuak, baserriak eta etxebizitzak, zerbitzu instalazioak, ostalari-zako instalazioak, e.a.).

Nolanahi ere, kostan kokatuta egoteagatik eta itsas eraginagatik, gune hau EAEko Paisaia Bikainen eta Berezien Katalogoaren Aurreproiektuaren barruan katalogaturik dago, zeren bertako elementu morfologiko guztiak (batez ere itsasertzeko eta lehorreko eremuan eta kostaldeko labarretan eta hondartzetan daudenak), ingurumen elementuak (interesean landaredia eta animaliak) eta gizarte eta ekonomia elementuak (LUaren erabilera -belardiak, landa-lurrak, abeltzaintza-, zerbitzuak, zuzkidurak, e.a.) eta beraien integrazioa esanguratsuak baitira eta ikuspuntu teknikitik eta biztanleriaren partetik paisaiaz egiten den balorazio aski altua baita.

Orobat, esan beharra dago, ezen, gaur egun indarrean dauden EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek, garraio azpiegiturei buruzko 13. atalean, Deba eta Mutriku arteko GI-638 errepidearen bide zati hau «paisaia-aldetik interesa duten kostako ibilbide»en barruan sartzen dutela; hortaz, bide zati hauek diseinatzean eta eraikitzean, paisaia hau osatzen duten ingurumen kalitatean eragina duten alderdiak kontuan hartzeak lehenetsuak dira.

Alderdi geomorfologikoei eta geologikoei dagokienez, Euskal Kostaldeko Geoparkeari dagokion babes irudiaren mugen barruan igarotzen da trazadura (2011ko martxoaren 18ko Agindua, bertako geologiari lotutako elementuak balorean jartzen dituena), bi unitate litologiko nagusien bitartez (alternantzia flyschoidak: hareharriak eta lutita beltzak, eta, kareharrizko lutitak eta tuparri beltzak); geomorfologikoki, itsasotik gertuenik dagoen aldean hainbat altueratako labarrak osatzen dituzte, aldape pikoekin eta berez nahiko zabala den abrasio oinarri batekin. Alde horretatik, proiektuan duen zuzeneko inplikazioagatik, azpimarratu beharra dago, ezen, labar artetik igarotzen den egungo errepidearen ondoko hegiak ezegonkortasun geotekniko handikoak direla euren bertikaltasunagatik eta euren izaera geologiko eta kokapenagatik, lur mugimenduei eusteko bertan jarrita dauden gaur egungo elementuek eta sistemek agerian jartzen duten bezala.

Hidrologiaren eta bertako ur masen ikuspegitik begiratuta, aipatutako eraketa litologikoei halako jokabide iragazgaitz bat dute, eta horren ondorioz, trazan zehar eta inguruetan ez dago interes handiko akuiferorik; beraz, alde horretatik, mota horretako urakortasunik ez da hautematen inguruotan. Bestalde, errepidearen eremuko hidrologia kontinental (lur gaineko ur jariatzeak husten dituzten ibarbidetako gune txiki batzuk kenduta) oso goian ez dagoen errekasto baten presentziara mugaturik dago, Errekaundi erreka baten zuzen; Laranga auzoan sortzen da (Ametza baserriaren ondoan) eta 500 m inguru egiten ditu itsasoan zuzen-zuzenean isuri baino lehen. Deba eta Mutriku arteko kostako bide zatian dagoen itsas eremu honen egoera ekologikoa eta ur masaren egoera kimikoa ona da (Deba ibaiaren estuarioan moderatuki ona), EAEko kostako urak zaintzeko sarearen arabera. Azkenik, soberakinak depositatuak kokatzen den Laranga auzoaren inguruan ez dago lur gaineko ur

Asimismo, el proyecto conlleva la apertura de un depósito para los sobrantes generados en la obra, que se estiman en aproximadamente 80.000 m<sup>3</sup>. Se han estudiado 4 alternativas de localización, optándose finalmente por un emplazamiento (DS2) en la zona de Laranga cercano a la obra, que ocupa una superficie aproximada de 25.000 m<sup>2</sup> en las inmediaciones del caserío Larangaetxeberri.

Sensibilidad ambiental del ámbito de ejecución:

El proyecto se desarrolla íntegramente en el término municipal de Mutriku, en la zona costera entre Mutriku y Deba por la que transcurre la actual carretera GI-638. Se trata de un entorno general variable y mixto en relación con los usos existentes que conforman el paisaje, en el que se observan tanto elementos rurales/naturales (ámbito marino, acantilados y plataforma litoral rocosa -playera en Ondarbeltz-, bosquetes naturales y las plantaciones, prados, etc.) como otros más urbanos y antropizados (la propia carretera y sus zonas adyacentes, aparcamientos, caseríos y viviendas, instalaciones de servicio, hosteleras, etc.).

En cualquier caso, debido a esa ubicación costera y de influencia marina, la zona se encuentra catalogada dentro del Anteproyecto de Catálogo de Paisajes Singulares y Sobresalientes de la CAPV, ya que la integración de sus elementos morfológicos (sobre todo el propio ámbito litoral marítimo-terrestre y los acantilados costeros y las playas), ambientales (vegetación y fauna de interés) y socioeconómicos (utilización del SNU -prados, plantaciones, ganadería-, servicios, dotaciones, etc.) son significativos y con una valoración paisajística alta desde el punto de vista técnico y de apreciación por parte de la población.

Igualmente hay que mencionar que las vigentes Directrices de Ordenación Territorial de la CAPV en el capítulo 13 dedicado a las infraestructuras de transporte, califica este tramo de la carretera GI-638 entre Deba y Mutriku entre los «recorridos costeros de interés paisajístico», indicando que en el diseño y construcción de estos tramos debe de tenerse en cuenta de forma prevalente los aspectos que inciden en la calidad ambiental que conforman ese paisaje.

Por lo que se refiere a los aspectos geomorfológicos y geológicos, el trazado discurre dentro de los límites de la figura de protección correspondiente al Geoparque de la Costa Vasca (Orden de 18 de marzo de 2011, que potencia la puesta en valor los elementos asociados a la geología de la zona), a través de dos unidades litológicas principales (alternancias flyschoides de areniscas y lutitas negras, y lutitas calcáreas y margas negras), que geomorfológicamente conforman en la zona más cercana al mar formaciones de acantilados de diversa altura con fuertes pendientes y una base de abrasión más o menos ancha. En este sentido hay que remarcar por su directa implicación con el proyecto, la importante inestabilidad geotécnica que, debido a su verticalidad, naturaleza geológica y situación, presentan las laderas de la carretera actual que transcurren por esta zona acantilada, puesta de manifiesto por la existencia actual de diversos elementos y sistemas de contención.

Desde el punto de vista hidrológico y de las masas de agua de la zona, las formaciones litológicas comentadas presentan un comportamiento impermeable que implica que a lo largo de la traza y sus inmediaciones no se den acuíferos de interés, confirmando, por tanto, a la zona una vulnerabilidad no apreciable al respecto. Por su parte, la hidrología continental en el ámbito de la carretera, aparte de las pequeñas zonas de vaguada que evacúan la escorrentía superficial, se circunscribe a la presencia de una regata de entidad no elevada, Errekaundi, que nace en el barrio de Laranga (junto al caserío Ametza) y recorre algo más de 500 m antes de desembocar directamente en el mar. Este ámbito marino en el tramo costero entre Deba y Mutriku presenta un estado ecológico y químico de la masa de agua calificado como bueno (moderado para el estuario del río Deba) según la red de vigilancia de las aguas costeras de la CAPV. Finalmente, la zona del barrio de Laranga donde se localiza el

ibilgu iraunkorrik, eta akuiferoak kutsatzeko arriskua ere ia anizemanezina da edo oso txikia da.

Proiektuaren eraginpeko eremuaren barruan dauden landareei, habitatei eta natura-interes handiko guneei dagokienez, EAEko babestutako natura guneen sarearen barruan egon daitezkeen edozein tokitatik kanpo dagoela esan beharra dago (EBIL/KBE, parke naturala edota biotopoa), nahiz eta, proiektuaren eremutik kanpo, baina hurbil, Deba-Zumaiaiko itsasertzeko biotopoa egon.

Bestalde, hobekien kontserbaturiko landaredi naturaleko orbanak eraginpeko eremuan dauden maldarik handieneko lekuetan agertzen dira, hau da, kostaldeko labarretan, non batez ere bizi baitira itsas baldintzak jasatera egokituriko zuhaixka eta belar espezieak, eta horietako batzuek Europar Batasunaren intereseko habitat kontsiderazioa daukate (1230: kosta atlantikoetako landaredia duten labarrak, 4030: txilardi europar lehorra, 4040\*: kostako txilardiak *Erica vagans*, 6210: belardi mesofiloak *Brachypodium pinnatum*; bestalde, itsas eraginetik babestuago dauden malda handiko beste leku batzuetan baso eraketa naturalak daude (baso mistoa, non nagusi baita *Quercus robur* espeziea, eta beste baso batzuk *Quercus ilex* eta *Quercus rotundifolia* basoak –Europar Batasunaren intereseko habitata, 9340–).

Malda txikiagoko lekuetan batez ere baso sailak (konifero mistoak edo *Pinus radiata* basoak) eta altuera gutxiko sega-belardi pobreak (Europar Batasunaren intereseko habitata, 6510) azaltzen dira; eta zenbait tokitan, baso misto gehiago agertzen dira, batez ere *Quercus robur* motakoak. Ondarbeltzeko itsas eremuan bertan, proiektu eremutik hurbil, 1130 Europar Batasunaren intereseko habitata dago, «estuarioa», Deba ibaiaren bokaleari lotuta. Bestalde, soberakinen depositua kokaturik dagoen lekua ia osorik estalita dago (25.000 m<sup>2</sup>) altuera gutxiko sega-belardi pobreekin, zuhaitz orban txiki batzuk han eta hemen azaltzen badira ere (sahatsak, urkiak, haritzak eta tuiak).

Proiektuaren eremu geografikoaz balia daitezkeen intereseko espezie faunistikoei dagokienez (30TWN59 laukia), mehatxaturik dauden EAEko edo estatuko katalogoen arabera espezie bakari gisa katalogaturik dauden lau espezie daude (denak hegaztiak: arrano sugezale europarra, belatz handia, txio horia eta euli txori beltza), arriskupean katalogaturik dauden sei espezie (horietako hiru hegaztiak: argi oilarra, sai zuria eta buztangorri argia; eta hiru kiroptero: haizulo saguzarra, saguzar handia eta ferra-saguzar txikia), eta desagertzeko dauden bi espezie (bisoi europarra *Mustela lutreola* eta Miru gorria *Milvus milvus*).

Azkenik, kultur ondasunei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritzak adierazi duenez, proiektuaren eremuan ez dago katalogaturiko elementurik, eta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruei dagokienez, EAEko inbentarioak (165/2008 Dekretua) trazatik oso hurbil dauden bi lursail jutzen ditu kutsatutaz.

Balitzko inpaktuaren ezaugarriak:

Analisiari dagokionez, lehendabizi esan beharra dago ingurumenaren ikuspegitik positibotzat jotzen dela proiektu honek bilzen dituen helburuak (Mutriko bide irisgarritasuna eta bideen arteko lotura –ibilgailuena zein oinezkoena– hobetzea, segurtasuna eta funtzionaltasuna egoki bideratuz) lortzeko, garatu beharreko irtenbidea, besteak beste, irizpide honetan oinarritu izana: gaur egungo galtzada ahalik eta gehien aprobetxatzea.

Aplikatzekoak diren jasangarritasun irizpideak kontuan hartuta, orokorki ulertu beharra dago, ezen, egungo azpiegiturak optimizatzea eta hobetzeak sorrarazten dituen eragin ambiental, sozial eta ekonomikoak txikiagoak direla, trazadura berrietan oinarritutakoekin baino. Hori dela eta, kasu berezi honetan,

depósito de sobrantes no cuenta con ningún curso de agua superficial permanente, y su vulnerabilidad a la contaminación de acuíferos también es no apreciable o muy baja.

En lo que respecta a la vegetación, a los hábitats y a los espacios de interés naturalístico presentes en la zona de influencia del proyecto, hay que mencionar que el mismo se encuadra fuera de cualquier lugar perteneciente a la red de espacios naturales protegido de la CAPV (LIC/ZEC, parque natural y/o biotopo), aunque exterior al ámbito del proyecto, pero cercano, se encuentra el biotopo del tramo litoral Deba-Zumaia.

Por otro lado, es en las zonas de mayor pendiente del ámbito de afectación donde se ubican las manchas de vegetación natural mejor conservadas, ya sea en los propios acantilados costeros donde se encuentran fundamentalmente especies arbustivas-herbáceas adaptadas a las condiciones de exposición marina y algunas de ellas consideradas como hábitats de interés comunitario (1230: acantilados con vegetación de las costas atlánticas, 4030: brezales secos europeos, 4040\*: brezales costeros con *Erica vagans*, 6210: pastos mesófilos con *Brachypodium pinnatum*), como en otras zonas de elevada pendiente más protegidas de la influencia marina donde se desarrollan formaciones forestales naturales (bosque mixto dominado por *Quercus robur*, y bosques de *Quercus ilex* y *Quercus rotundifolia* –hábitat de interés comunitario 9340–).

En zonas con menor pendiente se observa fundamentalmente la presencia de plantaciones forestales (de coníferas mixtas, o de *Pinus radiata*), de prados pobres de siega de baja altitud (hábitat de interés comunitario 6510), y la continuidad, en algunas zonas, del bosque mixto dominado por *Quercus robur*. En el ámbito ya marítimo de Ondarbelz, cercano a la zona del proyecto, se encuentra el hábitat de interés comunitario 1130 «estuario», asociado a la desembocadura del río Deba. Por su parte, la zona en la que se ubica el depósito de sobrantes está cubierta en casi toda su superficie (25.000 m<sup>2</sup>) por prados pobres de siega de baja altitud, presentando algunas pequeñas manchas de vegetación arbolada (sauces, abedules, robles y thuya).

